

2023ko martxoaren 3an

PRENTSA AGIRIA

BAIONA 2023ko BESTEN AFIXA IRABAZLEA **Ia 14 000 boz eman dira 2023ko lehiaketarako**



2023ko besten afixarako lehiaketaren proiektu irabazlea Régis La Joie irudigilearena da. Britainian kokaturik den **Régis La Joie** irudigile profesionalak lehen aldiz hartu du parte, Nitch izenordearekin, Baionako Besten afixarako lehiaketan. Errugbiari esker 1998an ezagutu zuen Benoît adiskidearen besten afixen bildumak liluraturik dela dio. Adiskideak bere eskualdea bai eta bere hiria eta bestak ere ezagutzera eman dizkio. Harengatik eta harekin duen adiskidetasunaren ohoretan ekin omen zion 2023ko Baionako besten afixa sortzeko lehiaketari. Bere proposamenaren xedea besten irekitze ekitaldi nagusia da, Léon erregearekin balkoian, zapi gorritz jantzi jende olde bati buruz, elkartasunezko une bat, alegia.

Emaitzek ez dute zalantzarik uzten, **Régis La Joie irudigileak proposatu afixa proiektua da buruan, bozen % 34,43rekin**, gero Ophélie Dhayere-rena dator, bozen % 23,11rekin, gero Audrey Birles-ena (% 21,73), Vincent Bergue-rena (% 11,7) eta Miguel Urmenetarena (% 9,03).

Bozka aldian zehar, hau da, 2023ko otsailaren 10etik 26ra bitartean, **13 668 pertsonak** eman dute beren boza internet bidez. Baionako besten webgunea (fetes.bayonne.fr) 2022ko besten afixen lehiaketarako ireki zen eta, handik edo hemendik nabigatzeko eta bozkatzeko egokitua delarik, **51 923** bisitak ukan ditu eta **67 981** kontsulta egin dira afixaren lehiaketarako orrialdean. Aipa dezagun ere lehiaketa horrek gogo handia sortu duela sare sozialetan, bereziki Baionako Besten Facebook orrian **350 000** bisitari ukan baititu aldi horretan.

Izan diren 13 668 bozkatzaileen artean, **ia % 68** Pirinio Atlantikoetakoak (7498) eta Landetakoak (1760) dira, eta ia % 20 (2533) Baionakoak.

Frantzia osotik, baita itsasoz haraindiko departamendu eta eskualdeetatik ere, heldu zaizkigu. Argentina, Mexiko, Maroko, Senegal, Italia, Zelanda Berria, Finlandia eta Peru herrialdeetatik ere bozkatu dute internautek.

Aurtengo lehiaketan, jendeen bozek azken emaitzen %60ko balioa ukan dute. Gainerako % 40a udalaz kanpoko batzordearen kideek azaldu boza izan da. Aipa dezagun prozedura osoa justizia uxer baten kontrolpean egin dela.

Baionako Hiriaren prentsa harremanak – 05 59 46 63 01 - presse@bayonne.fr